

Emakumeen kontrako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna

2012ko maiatza



HERRIZAINGO SAILA

*Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

*Dirección de Atención a las Víctimas de
la Violencia de Género*



1

EAE-KO HERRITARREN PERTZEPZIOA ETA IRITZIAK GENERO-INDARKERIARI BURUZ

Genero-indarkeriaren arazoak zenbaterainoko larritasuna duela uste da?

Kontsultatutako pertsona gehienek (% 82,2) uste dute genero-indarkeria lehen mailako gizarte-arazoa dela.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTAREN ARAZOAREN LARRITASUNARI BURUZKO PERTZEPZIOA %



❖ **Emakumeek** larritasun handiagoa hautematen dute (*): (% 85,1 eta gizonen % 79,2).

❖ **Pertsona nagusiek** zerbait larriagozat jotzen dute: (% 84,2 eta gazteen % 80,4).

❖ **Emakume nagusiak** zorrotzagoak dira (*): (berorien % 89 eta gizon nagusien % 77,6).

❖ **Gizonen artean bikotekidea izateak** eragina du (*): (% 81,1 eta bikotekiderik ez duten gizonen % 74,2).

❖ Beren burua **ezkerreko ideologiaren** barruan ikusten duten pertsonak (*) larritasun handiagoa duela uste dute, batez ere **gizonek** (*).

Zein pertzepzio dago indarkeria-mota honen kasuen eboluzioari buruz?

Kontsultatutako hiru pertsonatik bik uste dute azken urteotan emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasuak areagotu direla.


❖ **Emakumeak** zorrotzagoak dira (*): (berorien % 75,4 eta gizonen % 57,8).

❖ **Pertsona nagusiek** kasuak areagotu direla hautematen dute (*): (% 77,7 eta gazteen % 53,2).

❖ **Gazteen sexuaren** (*) araberako diferentziak, baina gainerako herritarrekiko txikiagoak dira (emakumeen % 58,1 eta gizonen % 48,6).


❖ **Indarkeria honek zenbat eta larritasun handiagoa duela uste izan** (*), orduan eta hazkunde-tasa handiagoak hautematen dira.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTAREN EBOLUZIOARI BURUZKO PERTZEPZIOA. %



EAEko herritarren iritziazen arabera zein da gizonen sentsibilizazio-maila emakumeen kontrako indarkeria matxistarekiko?

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTAREKIKO GIZONEK DUTEN SENTSIBILIZAZIO-MAILARI BURUZKO PERTZEPZIOA. EMAITZA OROKORRAK, SEXUAREN (*) ETA ADINAREN (*) ARABERA. BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOA 0TIK 10ERA BITARTEKO ESKALAN



Euskal gizartearen ustez, gizonen sentsibilizazio-maila emakumeen kontrako indarkeria matxistarekiko 6,2koa da 0tik 10era bitarteko eskalan.

❖ **Emakumeak** kritikoagoak dira (*): beraientzat gehien errepikatzen den puntuazioa 5ekoa da eta gizonentzat 7koa.

❖ **Pertsona nagusiek** sentsibilizazioari buruzko pertzepzio eskasagoa dute (*): batez beste, nagusientzat 5,7koa eta gazteentzat 6,2koa.

❖ **Emakume nagusiak** puntu gutxien ematen dutenak dira (*): batez beste, emakumeentzat 5,2koa eta gizonentzat 6,4koa.

❖ **Gazteen sexuaren** araberako diferentziak (*), baina gainerako herritarrekiko txikiagoak dira (emakumeentzat 6koa eta gizonentzat 6,5ekoa).

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaien gurtzaketakoko diferentziak estatistikoki adierazgarriak direla ($F < 0,05$).

Zer pertzepzio du gizarteak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz?

Euskal herritarren ustez, gizonen eta emakumeen artean egun dagoen berdintasun-maila 5,6 puntukoa da, 0tik 10era bitarteko eskalan.


❖ **Emakumeak** ezkorragoak dira (*): beraientzat gehien errepikatzen den puntuazioa 5koa da eta gizonentzat 6koa.

❖ **Gizonen** artean **seme-alabak izateak** eragina du (*): (batez beste, 5,89koa eta ez dutenentzat 5,67koa).

❖ **Maila sozioekonomikoak** (*), **batez ere gizonezkoenak** (*), eragina du kontu honetan: diru-sarrerara altuen maila zenbat eta handiago izan, orduan eta puntuazio handiagoa.

❖ Ezin da **adinaren** arabera diferentzia adierazgarrikerik ateratu.


GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUN-MAILARI BURUZKO PERTZEPZIOA. EMAITZA OROKORRAK, SEXUAREN (*) ETA ADINAREN ARABERA. BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOA 0TIK 10ERA BITARTEKO ESKALAN.



Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaien gurtzaketakoko diferentziak estatistikoki adierazgarriak direla ($F < 0,05$).

Zeintzuk dira emakumeen kontrako indarkeria matxistaren inguruko mitoak eta iritziak?

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTARI LOTURIKO IRITZI BATZUEKIKO ADOSTASUN-MAILA. %



Euskal herritarrek nola uste dute jokatuko luketela mota horretako zenbait indarkeria-egoeratan?

NOLA ERANTZUTEN DUTE HERRITARREK EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTAREN ZENBAIT KASUREN AURREAN. %

	1. kasua: Bortxatzen ari diren emakume batekin topo egin duzu	2. kasua: Sarri entzuten dituzu auzoko bikotearen eztabaida bero-beroak eta gau batean kolpeak eta oihuak entzun dituzu	3. kasua: Zure lankideetako bat edo lagunik onenetako bat lantokian edo eskolan sexu-jazarpena jasaten ari da
Biktima sorotsi eta elkarte batekin harremanetan jarriko nuke eta erasoak salatzeko gomendioa emango nioke.	47,1	9	80
Poliziari deituko nioke	49,6	69,1	6
Erasotzaileari aurre egingo nioke	29	4,7	4,6
Ez nuke ezer egingo (beldurragatik, nire arazoa ez dela uste dudalako, edo zer egin jakingo ez nukeelako)	7,8	11,9	5,7

Planteatutako kasuetako bakoitzaren aurrean % 4,7k, % 5ek eta % 4,2k, hurrenez hurren, ez lukete jakingo zer egin.



2

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTAREN ERAGINA EAE-N

Zein da emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasuei buruz euskal gizartean dagoen ezagutza-maila?

KONTSULTATUTAKO PERTSONEN INGURUAN EMAKUMEEN KONTRA GERTATUTAKO INDARKERIA MATXISTAREN KASUREN BATEN BERRI IZATEA. %



Kontsultatutako pertsonen % 9k dio bere inguruan egun indarkeria-mota horren biktima den emakume bat gutxienez ezagutzen duela..

❖ **Emakumeek** kasu gehiagoren berri dute (*): Beraien % 11,2k eta gizonen % 8,6k.

❖ **Gazteek** kasu gehiago ezagutzen dute (*): % 12,2k ezagutzen du.

❖ **Genero-indarkeria jasan duten emakumeek** kasu gehiago ezagutzen dute (*):

Zenbat emakumek jasan dute inoiz indarkeria matxista? Zenbatek jasaten dute gaur egun? (Adierazitako indarkeria)

EAEko 16 urte edo gehiagoko emakumeek diote beren bizitzan indarkeria-mota hori noizbait jasan dutela eremuetako batean (bere bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa, familia barruko genero-indarkeria, lan-esparrukoa, gizarte-esparrukoa edo eremu publikoan gertatutakoa). Horietatik, % 2k adierazten du egoera hori egun jasaten ari dela.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTA JASAN EDO JASATEN DUTEN EMAKUMEAK EREMUAREN ARABERA.

	NOIZBAIT	GAUR EGUN
	%	%
OROKORRA: eremuetako edozein	12,5	2,02
BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA	7,5	1,19
FAMILIA BARRUKO GENERO INDARKERIA (bikotekidearena edo bikotekide ohiarena izan ezik)	1,79	0,67
LAN ESPARRUA <small>Oharra</small>	1,8	0,4
ESPARRU SOZIALA/PUBLIKOA	2,7	0,15

Zenbat emakumek jasan dute inoiz indarkeria matxista? Zenbatek jasaten dute gaur egun? (Adierazitako indarkeria)

Eremu bakoitzeko errealitatea berezi samarra izan arren, orokorrean:

- ❖ Indarkeria psikologikoa maizen gertatzen den era da.
- ❖ % 23,1ek urtebetea baino gutxiago darama indarkeria jasaten eta % 30,8k 1 eta 5 urte artean darama indarkeria-egoeran. Egoera hori jasaten 10 urte baino gehiago daraman emakume-taldea % 30,8 da.
- ❖ Biktima izan diren edo diren emakumeen % 75ek ez du salatu.
- ❖ Eragindako emakumeen % 17,2 baliabide espezializatuera joan da.
- ❖ Indarkeriaren prebalentzia handiagoa dago 30-39 urte bitarteko emakumeen artean (noizbait bizitzan) eta 40 urtetik gorakoen artean (gaur egun).
- ❖ Ikasketa-maila handiagoak ez dakar prebalentzia txikiagorik.
- ❖ Eragindako emakume gehienak atzerritarrak ez diren arren, emakume atzerritarren taldeak prebalentzia handiagoa du.

Zein indarkeria-egoera bizi dute EAEko emakumeek? (Indarkeria ondorioztatua edo teknikoa)

Emakumeen % 18,2k emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruz planteatutako egoeretako bat gutxienez bizi izan du (oharra); gainera, sarri samar azken urtean, eremuetako batean (bikotekidearena edo bikotekide ohiarena, familia barrukoa, lan- edo gizarte-esparruetakoa).

PLANTEATUTAKO INDARKERIA-EGOERA BAT GUTXIENEZ AZKEN URTEAN BIZI IZAN DUTEN EMAKUMEAK, MAIZTASUNAREN ETA EREMUAREN ARABERA.

	Noizbait	Sarri edo batzuetan
	%	%
OROKORRA: eremuetako edozein	29,6	18,2
Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria (1/23 edo gehiago)	8,5	6,3
Familia barruko genero-indarkeria (bikotekidearena edo bikotekide ohiarena izan ezik)	6,1	4,5
Lan-esparrua (1/19 edo gehiago)	11,1	7,2
Gizarte-esparrua (1/17 edo gehiago)	19,9	9,3

Oharra: Emakumeek genero-indarkeriaren biktima izan direla zuzen adierazi duten edo ez alde batera utzita, kasu batzuk ondorioztatu dira emakumeek galdera-multzo bati eman dizkieten erantzunei jarraikiz. Galdera horiek emakumeen kontrako indarkeria-moten zuzeneko edo zeharkako adierazleak islatzen dituzte.

Zein indarkeria-egoera bizi dute EAEko emakumeek?: (Indarkeria ondorioztatua edo teknikoa)

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria:

BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDA, PLANTEATUTAKO INDARKERIA-EGOERA BAT GUTXIENEZ AZKEN URTEAN BIZI IZAN DUTEN EMAKUMEAK, MAIZTASUNAREN ARABERA.

	Noizbait	Sarri edo batzuetan
	%	%
BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA (1/23 edo gehiago)	8,5	6,3

❖ Prebalentzia handiagoa 30 urtetik beherako emakumeen artean.

30 urtetik beherako emakumeak, azken urtean sarritan beren bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aldetik hau jasan baldin badute: *mespretxuak egin dizkiete beste pertsona batzuen aurrean (% 2,8); errietak, irainak eta mehatxuak jaso dituzte (% 3,3); behar bezalako arreta ez emateagatik errudun sentiarazi dituzte (% 1,9); haserretuz gero, emakumeak maite dituen gauzen kontra jotzen dute (% 2,4); batzuetan beldur izaten da (% 1,9); familia ikustea edo lagunekin harremanak izatea galarazten diote (% 1,4); ordutegia kontrolatzen diote (% 1,4) eta telefono mugikorra edo posta elektronikoa kontrolatzen dizkiote (% 1,4).*

Zein indarkeria-egoera bizi dute EAEko emakumeek?: (Indarkeria ondorioztatua edo teknikoa)

Gizarte-esparruko edo espazio publikoko indarkeria (ezezagun batek edo familiakoa ez den ezagun batek eragindakoa):

GIZARTE-EREMUAN GERTATUTA, PLANTEATUTAKO INDARKERIA-EGOERA BAT GUTXIENEZ AZKEN URTEAN BIZI IZAN DUTEN EMAKUMEAK, MAIZTASUNAREN ARABERA.

	Noizbait	Sarri edo batzuetan
	%	%
GIZARTE ESPARRUA (1/17 edo gehiago)	19,9	9,3

❖ Prebalentzia handiagoa 30 urtetik beherako emakumeen artean:

30 urtetik beherako emakumeak, azken urtean noizbait hau jasan dutenak: *sexu-exhibizionismoak ikusi dituzte (% 13,7); lokaletan jazarpena edo gogoz kontrako zirriak jasan dituzte (% 13,2); kaletik jarraitu diete (% 11,3); mezu pornografikoak jaso dituzte internet bidez edo informazio- edo komunikazio-arloko beste teknologia batzuen bidez (% 3,3); errietak, irainak edo mehatxuak jaso dituzte (% 5,7); norbaiten beldur izatera heldu dira (% 3,8); beste pertsona batzuen aurrean gaizki utzi dituzte (% 3,3).*




3

EAE-KO HERRITARREK SEGURTASUNARI BURUZ DUTEN PERTZEPZIOA

Herritarrak zenbateraino sentitzen dira seguru bizi diren aldean?

SEGURTASUNARI BURUZKO PERTZEPZIOA
HERRITARRAK BIZI DIREN ALDEAN. %




10 pertsonatik 9k oso edo nahiko segurutzat jotzen dute beren bizitegi-gunea. Baina herritarren % 22,4 ez da oso seguru edo batere seguru sentitzen gauaz bakarrik ibili behar denean.

❖ **Gipuzkoan** segurtasun handiagoa hautematen da eta **Arabian** txikiagoa (*).

❖ Udalerri **txikietan** (*) segurtasunaren pertzepzioa handiagoa da.

❖ Emakume gazteek segurtasun-gabezia handiago antzematen dute, batez ere **gauaz** (*).

SEGURTASUNARI BURUZKO PERTZEPZIOA
HERRITARRAK BIZI DIREN ALDEAN GAUAZ IBILI
BEHAR DENEAN. %



Emakumeen kontrako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna

2012ko maiatza



HERRIZAINGO SAILA

*Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

*Dirección de Atención a las Víctimas de
la Violencia de Género*